

EUSKARABA



ARABAKO EUSKARA ZERBITZUAK



ZERBITZU KATALOGOA

EUSKARAREN FORU ZERBITZUA



AURKEZPENA

Zerbitzu katalogo hau aurkezten dugu Euskararen Foru Zerbitzuaren produktuen zabalkundea egin, ezagutzera eman eta eskura jartzeko, baita gardentasun ariketa gisa ere. Diseinu berria egiteko, Arabako Foru Aldundiak gizartea eta euskara balioesteko daukan kudeaketa eredu bat hartu dugu jarraibidetzat, eta hauxe da emaitza.

Euskararen Foru Zerbitzuaren eskumen esparrua zedarritzen duten arauak irakurrita diseinatu da zerbitzu katalogo hau, beraren bidez erantzutearren gure zerbitzuak zuzenean jasotzen dituzten edo gure jardueretan alderdi interesdunak diren erakunde, gizarte eragile eta pertsona guztien gogo eta beharrezane. Katalogoa, bereziki, erakunde publikoentzat da, zuzeneko bezerorik esanguratsuenak diren aldetik, eta herritarrentzat, azken bezeroa diren aldetik. Zerbitzu katalogoan jasota dago gure asmorik nabarmenena: zerbitzu horien bidez, Euskararen Foru Zerbitzua, geroan ere, elkarlanean jardun dadila erakunde eta eragile batzuekin eta besteekin, eraginkortasunez, azken helburua izanik Araban euskaraz bizi nahi duten herritarrei aukera hori bermatzea.

Ez dugu ahaztu behar pertsona eta erakunde anitz gabiltzala gizarte prozesu batean, funtsezko bi elementuri erantzun nahian: gizarteari, azken bezeroa den aldetik, eta, orobat, euskarari berari. Katalogo honi ezin izango geniokeen ekin pertsona eta entitate guztien elkarlanik gabe. Ezta ere ulertu gabe ezen gure misioaren azken urrats eta funtsezko kausa herritarrak eurak direla, azken bezeroa diren aldetik. Gure nahia da euskararen bidezko sozializazioa lortzea, eta uste dugu ezinbestekoa dela horretarako gainerako erakunde eta eragileekiko elkarlana.

Gizartea eta euskara, euskara eta gizartea, ezin dira azaldu bata bestea gabe, biak baitira gauza beraren osagaiak, alegia, Euskara Foru Zerbitzuaren misioaren eta estrategiaren osagaiak.

Jokin Larrañaga Larrañaga
Euskararen Foru Zerbitzuko burua
Vitoria-Gasteiz, 2017ko ekaina

MISIOA



Euskararen Foru Zerbitzuaren misioa da euskaraz bizitzeko aukera bermatzea, hala nahi duten arabarrei. Hori dela eta, gizarte eragile, erakunde publiko eta Foru Aldundiaren gainerako Sail eta Zerbitzuekiko koordinazio, egikaritze eta elkarlan neurri eta ekimenak sustatzen eta garatzen ditu, euskararen erabileraren normalizazioan urratsak emateko xedez, dela gizabanakoen mailan, dela gizartean edo arlo ofizialean.

IKUSPEGIA



Euskararen bidezko sozializazioa, oro har, gizarteak berak sustatzen du, era bateko eta besteko agente, pertsona eta kolektiboek euskara bitarteko dutela gauzatzen baitituzte elkarrekiko harremanak. Beste hitz batzuekin esateko, ez dago inor gizarteko elkarrekintzatik kanpo. Araban gauzatzen den euskararen bidezko sozializazio horretan, Euskararen Foru Zerbitzuaren ikuspegia da gidari eta partaide izatea.

1. LAGUNTZAK

- Kuadrilletan eta Trebiñuko udaletan euskara arloan laguntza teknikoa emateko
- Kuadrilla eta udalek euskararen bitartez sozializatzeko programak eta jarduerak garatzeko.
- Kultura elkarte eta entitate, kirol federazio eta kirol federazioen elkarte eta guraso elkar-teen federazioek euskararen bitartez sozializatzeko programak garatzeko laguntzak.
- Arabako lurralde historikoan eta Trebiñuko konderrian euskara gizarteratze aldera, irabazteko xederik gabeko gizarte eta kultura elkarteek eta pertsona fisiko eta juridiko pribatuek euskarazko komunikabideak eta IKTak sustatzeko
- Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian 2016-2017 ikasturtean ikasgela lekualdatuen gastuak finantzatzeko.
- A1, A2, B1 eta B2 mailetako matrikularen prezioa gutxiagotuz euskalduntzea sustatzeko.

2. SOZIALIZAZIO PROGRAMAK

Euskararen gizarte erabilera eta ezagutza suspertzeko hainbat esparrutan:

- Aisian
- Kulturean
- Familian
- Euskalduntzean
- Administrazioan
- Kirolean
- Lanean
- Hezkuntzan
- Komunikabideetan

3. KOMUNIKAZIOA

EUSKARABA WEB GUNEA:

- Euskararen normalkuntzaren helburuak, baliabideak eta praktika onak gizarteratzeko.
- Laguntza, aholku eta zerbitzu emale gisa saretu den Arabako Euskara Zerbitzuen berri emateko.

EUSKARAREN AGENDA

Arabian garatzen diren euskarazko ekimenen gaineko informazioa ematen duen erreferentzia gunek xede hauek ditu:

- euskarazko ekimenak bilatu
- partekatu, informazioa eta iritziak kontratastu.

KOMUNIKAZIO KANPAINAK

Euskararen erabilera indartu, zabaldu, sendotu sustatu dadin antolatzen diren kanpainak: Abenduaren 3a, Euskararen Nazioarteko Eguna, euskalduntzea sustatzeko matrikulazio kanpaina irailean, besteak beste.

4. BABESLETZAK ETA PARTAIDETZAK

ARABAKO EUSKARA ZERBITZUAK

Helburu partekatuak mahaigaineratuz, lan-taldeka funtzionatuz eta koordinazioa eta elkarlana oinarri, Lurraldeko hainbat erakunderen arteko (Kuadrillak, udalak eta Aldundia) euskara zerbitzuek onutzen dituzten programak gizarteratzeko.

EUSKALTZAINDIA

Euskara zaintzeko eta aitzinatzeko lankidetzaren hitzarmena.

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Bertsolaritzaz arduratzen diren bestelako eragile guztiekin batera, bertsolaritza zaindu, sustatu, ikertu eta bere transmisioa eta etorkizuna bermatzeko.

ARABA EUSKARAZ

Arabako ikastolen sustapenerako jaia Araban euskaraz izan dadin aldarrikatzeko.

LANABES

Arabako alor sozioekonomikoan euskararen presentzia txertatzeko eta handitzeko.

5. ARGITALPEN ETA IKERKETA

EUSKARA FORU ZERBITZUAREN ARGITALPENAK

Euskara, Kultura eta Kirol sailak editatu eta Araban euskararen erabilerarako lagungarri diren gida, aholku, esku-liburu, eskuorri edota bestelako euskarrietako argitalpenak gizarteratzeko.

KANPOKO ERAKUNDEENTZAKO ARGITALPENAK

Araban euskararen erabilerarako lagungarri diren gida, aholku, esku-liburu, eskuorri edota bestelako euskarrietako argitalpenak gizarteratzeko.

6. JARDUNALDI, TOPAKETA, HITZALDI ETA ANTZEKOEN ANTOLAKETA

Araban euskararen erabilera zein ikerketarako lagungarri diren jardunaldi, topaketa, hitzaldi edota bestelako antzeko ekimenak antolatzeko edota sustatzeko.

7. ERAKUNDEAREN BALIABIDEAK ETA ARETOAK

MOLDIZTEGI ZERBITZUA

Katalogo honetako jarduerekin loturiko karteleria, eskuorriak, liburuak, edota antzeko moldiztegi lanak argitaratzeko zerbitzua.

ARETOAK

Katalogo honetako jarduerekin loturiko ekitaldietarako egoitza baliabideak (ekitaldi aretoak, bilera gelak, aterpetxeak, edota antzekoak) erreserbatzeko eta erabiltzeko zerbitzua.



WEB

EUSKARABA, ARABAKO EUSKARA ZERBITZUAK

Euskaraba web gunean gure programa guztien gaineko informazioa duzu, eta bertan azaltzen da Arabako Euskara Zerbitzu guztien telefono, e-posta helbideak eta web guneak.

www.euskaraba.eus

Posta elektronikoa:

euskaraba@euskaraba.eus

NON GAUDE

Arabako Foru Aldundia
Euskararen Foru Zerbitzua
Probintzia Plaza z/g
01001 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 18 18 18